

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SAMANIEGOKO UDALA

2020ko zerga erroldak onestea

Alkatearen 2020ko maiatzaren 26ko dekretu bidez, zaborra etxez etxe biltzeko tasaren eta trakzio mekanikoko ibilgailuen tasaren, biak ala biak 2020koak, zerga erroldak onetsi dira. Horiek horrela jakinarazten da zerga errolda horiek eta haiei buruzko erabakia 15 egun baliodunez jarriko direla jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan interesdunek udal idazkaritzan aztertu ahal izango dituzte eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira, beste inongo erabakirik hartu beharrik gabe, eta borondatezko epean (bi hilabete) ordaintzeko eran jarriko dira; epe hori igaro eta ordaindu ez dutenei, premiamendu bidea aplikatuko zaie, dagozkien errekaru eta interesekin.

Samaniego, 2020ko maiatzaren 26a

Alkate-lehendakaria

M. PILAR GARMENDIA IPARRAGUIRRE